

Felipe Juaristik 'Etxearen negarra' gazte literaturako nobela kaleratu du

ERREDAKZIOA

Donostia

Etxearen negarra gazte literatura-ko nobela kaleratu du Felipe Juaristik (Azkoitia, 1957) Elkar argitaletxearekin. Etxez aldatzea dakartzan abenturak azaltzen ditu Juaristiren narrazioak. Izan ere, etxez aldatzea bizitzaren proiektu berri bat hastea izaten da. Liburuan, Edelmirok, mutil gazte gehienek bezala, kezka bat du buruan. Kezka baino gehiago ilusioa dela esan daiteke. Elisa izena du Edelmiroren kezka, eta ilusioak.

Elisa emakumea da, argia, burutsua, eta fundamentu handikoa dela ikus daiteke. Edelmiroren ilusioak buruhauste bat baino gehiago ekarriko dizkio liburuko hainbat pasartetan. Elisaren amak, Kandidak, oztopo ugari jarriko dizkio, eta Edelmirok aurre egiten ikasi beharko du, Elisa gehiago ezagutu nahi badu, behintzat.

Bestalde, *Ez da gua begietara etortzen* nobela argitaratu berri du Juaristik, helduentzat, Erein argitaletxearekin. Iraganari aurre egiteak dakarren mina da liburuaaren ardatza.

Kazabon, Bilbao eta Sagarzazuren lan bana kaleratu du Elkarrek

ERREDAKZIOA

Donostia

Haur literaturako hiru narrazio kaleratu ditu Elkar argitaletxeak: Antton Kazabonen *Nire ahizpa Aluïta*, Leire Iparragirrek ilustratuta; Leire Bilbaoren *Komunean gaitzen naiz*, Jokin Mitxelena ilustratuta; eta Pako Sagarzazuren *Punpuilaren bidaia*, Iraia Oki-nak ilustratuta.

Bere esperientziatik idatzita, Izaro ahizpa zaintzeak hamaika lan ematen dion Amaiaren istorioa kontatu Kazabonek *Nire ahizpa Aluïta* ipuin liburuan. Sei urte-tan zehar bi ahizpek izaten dituzten gora-beherak narratu ditu.

Aitona Joxe Manuelek kostaldean daukan etxera oporretan doan familiaz mintzo da Leire Bilbaoren *Komunean gaitzen naiz* liburu. Portuaren ondoan dago etxea, eta aitona dioenez, komuneko zulo-tik sarbide zuzena dago itsasora, kanabera batekin arrantza egiteko moduan.

Punpuila izeneko xaboi burbui-laren abenturak kontatu ditu azke-nik, Sagarzazuk *Punpuilaren bi-daia* narrazioan. Joxan Ormazabal-ek itzuli du liburua, gaztelaniatik.

Hamar urtetako zutabe hautatuak

'Euskaldunon Egunkaria'-n
eta BERRIAN idatzi dituen
zutabeak bildu ditu Pako
Aristik liburu batean

AMAIA ELIZONDO

Donostia

Euskaldunon Egunkaria-n eta ondoren BERRIAN idatzi dituen zutabeak bildu ditu Pako Aristik *Udan lana egiten zuen gizona* liburuan (Erein). 1997an egin zioten proposamena lehen aldiz. Orduan hila-bete osoan (abuztua) egunero idatzi behar zuen zutabea. Ordutik, ia urtero egin du. Idatzitako guztiak ez daude liburuan. «Zutabe ugari zeuden, eta hautaketa egin dugu. Azkenean 80 zutabe bildu ditugu», adierazi du Pako Aristi idazleak. Testu bakarra dago ez dena egunkarietan argitaratu: Benito Lertxundiri buruzko liburuan Aristik eginiko hitzaurrea.

Liburuan bilduko zituzten zutabeak aukeratzekoan, hainbat zailantza izan zituen. «Urteekin testuak zaharkituz joaten dira, eta zeure buruari galdetzen diozu ea duela hamar urteko testuek zer ekarpen egin dezaket. Hautaketa egiten hasi ginenean, ez nuen alde handirik aurkitu. Jarraipen estilistikoa eta ideologikoa zegoela ikusi nuen». Jarraipena zegoela eta, zutabeek ez dute datarik. Izan ere, zutabe gehienek testuingurua argi geratzen da.

Zutabe bat idazterakoan kontuan izan behar diren pausoak ere azaldu ditu Aristik: «Zutabe bat idazteko mediku batek bere kontsultan aplikatzen duen prozesu bera erabili ohi dut. Lehenik, diagnostikoa, errealitatea nolakoa den ikusi behar da, eta arazoa zehaztu. Bigarren pausoa, tratamendua litzateke, hau da, arazo horren irten-bidea proposatu behar da. Azke-



Pako Aristi idazlea liburuaren aurkezpenean, Donostian. JUAN CARLOS RUIZ / ARCAZKO PRESS

«Idaztea zeure buruarekin
hitz egitea da, eta, orduan,
ni beti ari naiz neure
buruarekin hitz egiten»

PAKO ARISTIK
IDAZLEA

nik, iragarpena egin beharko litzateke. Tratamendu hori aurrera eramanda, gure gizartea nolakoa izango litzatekeen iragarri».

Hiru oinarri horiekin idazten ditu Aristik bere zutabeak, baina oinarri horiekin batera beste argibi-

de batzuk ere eman ditu. «Zutabe bat idazterakoan albo batera utzi behar dituzu zure ideologia, zure aurreiritziak, zure maniak eta zure desioak. Denak albo batera utzi eta ispilu bat jarri zure begien aurrean. Ispilu horrek aurrean edo gizartean ikusten ari zarena erakutsi behar du. Hori jasotakoan, orduan has zaitezke gustukoa ez duzun hori aldatzen».

Zutabe bat ona izateko ezaugarriak ere aipatu ditu Aristik: «Diagnostikoa asmatzea ezinbestekoa da. Bestalde, estiloa eduki behar du zutabegileak. Estiloa gauzak zure erara esatea da. Zutabegileak bere moduan idaztea lortu behar du. Besteak erabiltzen dituzten hitzak, irudiak, esaldi eginak erabili gabe. Azken ezaugarria zutabe baten funtzionatzeko, zeuretik zerbait eman behar duzu. Zeure baitatik, zeure sentimenduetatik, zeure bizitzatik edota zeure oroitzapenetatik... Azken finean, *butxi* egin behar du zutabegileak».

«ENPATIA SORTZEA». Aipatutako osagaiak erabiltzen ditu Aristik bere lanetarako. «Osagai horiekin irakurlea identifikatuta sentitzen da gehienetan. Enpatia sortzen da irakurlearekin». Bestalde, egunkari batean zutabeak idatzi ahal izatea «luxua» da Aristirentzat. «Zuzendaritza batzordeak zuri leku hori eskaintzea luxua da niretzat. Horrelako aukeraren aurrean, egin dezakezun aportaziorik handiena eskaini behar da».

Zutabeak idazteko ez da gai bila hasten Aristi. «Dagoeneko gaiak neure baitan dauzkatz. Egunero ari naiz pentsatzen, gogoeta egiten. Idaztea zeure buruarekin hitz egitea da, eta, orduan, ni beti ari naiz neure buruarekin hitz egiten. Barruan dudana kanporatzen dut. Aspaldi galdu nuen nire iritzia agertzeko lotsa. Iritzia naturaltasun osoarekin ematen dut».

Soinu onari darraio

KRITIKA

MUSIKA
BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA

JESUS MARI BEGOÑA

Bilbao Orkestra Sinfonikoak bere soinu propioari eutsi zion laugarren kontzertuan, eta Juanjo Menaren zuzendaritzapean, XX. mendeko egitarauaren barrena sartu zen. Ohikoa ez zen hasiera honetan, Edgar Elgarren biolin eta orkestrarako kontzertu konplexua bezain misterioa eskaini ziguten Sitkovetski bakarlari parte-hartze apar-

tarekin. Izan ere, errusiar jotzailea ibilbide luzeko musikaria da eta gaitasun handikoa biolinarekin. Berak, atariko mugimenduan loratu zituen filadoak eta esaldikapenak maisutasunez egin zituen, bai lirismora bai ikustaldira helzteko helburuarekin, izatez iluna eta ekaiztsua den mugimendu horretan.

Hirugarren joaldi dramatikoan, aldiz, Sitkovetski aldatu zuen arrabita jotzeko teknika eta ateratzion soinua lerdene zen agudo alorrean; baita hari bikoitzak edo hiru bikoitzak interpretatu zituen sa-soian coda erraldoia zehar zein

gora eta beheko eskala eta arpegioetan ere.

Beste aldetik, Mena zuzendaria ondo eraman zituen bakarlaria eta orkestra kontzertatzeko ahalegina dinamika eta erritmo egokiek. Kontzertua amaitu zenerako bakarlariak egitarautik kanpoko pieza bat eman zigun. Bachen *Partita*-tik hain zuzen, biolin bakarretik, etengabeko armoniak eginez.

Bigarren zatian, Martinu txekiarraren eta Ravel euskaldunaren piezak etorri ziren zein baino zein koloretsuago orkestraren aldetik. Bohuslav kompositoreak Arezoko eliza batean dauden freskoen gaineko musika hausnarketa egin zuen, Piero della Francesca-renak hain justu. Horretan zein

Ravelen *Ma mère l'Oye* izeneko suitean, Menak irakurketa orekatsua eta sentsuala ateratzion orkestrak daukan paleta tinbrikoari. Eta agian, guretzat erakargarriago suertatu zen bigarren horretako *L'Idéonnette*, pagolen enperatriza; bertan, musikariak instrumentuen koloreen gainetik egin baitzuten interpretazio delikatu-gatik, ipuinetako izakiei dagokien modukoa.

Kontzertua: Denboraldiko

4. kontzertua.

Zuzendaria: Juanjo Mena

Bakarlaria: Dmitri Sitkovetski.

Egitaraua: Elgar, Martinu eta Ravelen konposizioak.

Lekua: Euskalduna jauregia.

Eguna: Azaroaren 22a.